

## Ikastolak ez dira helburu

**IKASTOLEN** inguruan sortu den auziak jende asko sumindu du. Behin bat gehiagotan, Euskal Herrian ez dugu jakin arazoak patxadaz eztabaidatzen. Aldiz, egon daitezkeen, eta egon badauden, diferentziak kasu askotan partiduen konsigna politikokopon tratatu dira eta gero, noski, eztabaida maila pertsonaletara jeitsi da, deskalkifikatiora. Ondorioz, zauri personal ugari sortu da. Tamalgarrira.

Gaiak gehiagorako ematen badu ere, labur esan dezadan auzi honetan zein izan den, nere ustez, egin den akatsik larriena: ikastolak berak helburu bezala hartzea. Eta ez jauna, arlo honetan helburuak haurren heziketa eta E.H. berreuskalduntzea (edo euskararen normalizazioa) dituguna.

Bigarren helburu honetarako ditugun bitartekoetatik bat, ez bakarrik. Hezkuntz Sistema da. Eta ikastola Sarea Hezkuntz Sistema horren zati bat. Beraz, tresna mugatu bat. Tresna dela eta mugatua dela aitortzetik hasi beharko genuke estrategia amankomun hitzartu bat eraiki ahal izateko. Helburu nazionala lortzeko behar dugun estrategia.

Baina, egia esan, zail daukagu hori buruak baino gehiago bihotzak agintzen duen Herri honetan. Sentimenduek jokatzeko duten gehiegi. Bestalde, ez da hori harriztekoa, ikastolen sorreratik hainbat jendek egindako lan eskergak eta beren garapen prozesuan protagonista izateak ikastolarekiko sentimenduzko lotura estuak finkatu baititu. Halabaina, aipatutako garrantzi handiko helburu hori lortzeko, bihotzak ez lioke buruari lan egitea oztopatu behar.

EUSKALDUNON EGUNKARIAN berriro Juanjo Baztarrakak Elgoibartik idatzitako kasu paradigmatico bat iruditzen zait. Bertan adierazten duenez, Elgoibarko ikastolaren sortzaile eta protagonista izandako Felix 'Parapan-i' (Gipuzkoako Ikastolen Federazioan kide izan nuena, gorantziak Felix!) bihotzak agintzen diola dirudi auzi honetan: «Euskararen normalizazioa ikastolak bazter guztietan sortuaz iritsiko dela uste zuen orain dela hamabost urte ere». Juanjo Baztarrakak, aldiz, «eskola publikoa euskaldunetz lortuko dela» uste du.

Ikastola Mugimenduak helburu horren alde egindako ekarpen handia aitortu beharra dago lehenik. Baina jarraian beste hau ere errekonozitu behar dugu: ekarpen hori mugatua dela. Beste era batera esanda, Ikastolek beren indarrez soilik ezingo dutela inoiz ere helburu hori erdietsi.

Helburura hurbiltzen joateko, D eredia beste sareetan, batez ere sare publikoan, ahal den gehien ezarri beharra dago. Eta nik uste dudanez, ikastolek, sare publikoan saruz, D eredia ezartzearen dinamikari eman lezaioke bultzada bat hemendik aurrera eskeini lezaketen zerbitzurik bikainena. Horretarako, jarraera defentsibotatik mugitzeko ausardia behar.

Badakit konsigna politikokopon mugitzen den Herri honetan helburu amankomun minimoetarako behar ditugun biltzarrenak ia ezinezkoak diruditela, eboluzioaren politika (zeina PNV-k gidatzen duen) eta haustura politika (HB-k ordezkatzen duena)-ren artean eraiki dugun zorigaitzoko leize sakona dela medio. Boterea eta Kontraboterearen arteko leizea.

Indarrak batu behar genituzkeen garaian, zubigileak behar ditugu eta ez leizea leizeago egiten saiatzen direnak. Horregatik, nere txaloa eta konfidantza botoa Elkarrri bezelako mugimenduei. Nere gaitzespena, aldiz, bi aldeetatik ematen ari diren sorgin ehizei.

Hemen salatu nahi ditut HB-ko partaide ezagunak, Ikastolaren auziaren inguruan han eta hemen sektakeriaz 'saldukeria' aipatzen ari direnean eta, 'traidoreak' edonon bilatzen. EGUNKARIA honetan bertan irakurri dugu perla ederrik. Adibiderik muturrekoena jartzearen, Txillardegi egiten ari den kaltea aipatu nahi nuke. Astea joan eta astea etorri, EGUNKARIA-ren tribunatik hor ari zaigu PNV-ko 'traidoreekiko' duen fizio patologikoa deskargatzen. Agerian gelditzen da, bere malgutasun politiko minimorik ezak, dogmakieriak eta fobiak bitzita politikoko zehar frakasorik frakaso eraman duen gizona kasu honetan ere birtartekoak eta helburuak nahasten ari dela.

Kuriosoa da, bere teoriak matematiketan oinarritze-zale den Txillardegi nola ez den ikastola Mugimenduen muga matematikoa (zeina gehienez, asintotikoki, 40% ingurura hel daitekeen) errekonozitzeko gauza, falta den 60% horretara iristeko inongo aliantza estrategiarik formultzen ez duelarik. Ez da harriztekoa egia esan, behar dugun batuketaren ordez kenketa bultzatzen saiatu izan ohi da-eta beti.

Betoz Elkarrriak eta ezkuta bitez Txillardegiak.

**ROMAN IRIGOIEN**  
GIE-KO BATZARKIDE OHIA

## Belgikar Kijote bat

**BALDUINO** Iaren heriotza gertatu eta astebete iragan ondoren, bere hileta ospakizuna abuztuaren 7an izan zen. Guztiz hunkiturik gelditu nintzen bere hileta ekitaldia telebistan ikusirik, eta batez ere, bere bizi-testigantzarri egin zioten omenaldia aztertutik.

Lantxo honen deiturak 'Kixote' hitza du. Izena 'norbait' hurja eta ekintza ugariak, oso-osorik Zerbantesen asmeneko sorkari dira. Mantxako Kijote, izen oso eza-guna zaigu, baina egiaz eta benetan behin ere inon ez da izan, espainiar idazle Miguel Zerbantesen haundiaren irudimenean edo sormenean izan ezik: bete-betean hark asmatua baita.

Hala eta guztiz ere, ekintza haundi eta harrigarriak, ongintza ederrak burutu nahi dituzten guztien eredu gertatu da. Ekintzara eraman ezinak eta egia bihurtu ez ditzaizkengunak izan arren ere, asmo txit ederrak eta amets bikainak dituenari, eta egonezinez ameslari bezain urdui dabilenari esan ohi diogu orain 'Kijote'.

Eta horra Belgikan 1930ean jaio zen

Balduino I goa. Bere gurasoak Leopoldo III.a eta Suediako Astrid erregina izan ziren. Belgikako bostgarren erregea zen (1951-1993), eta Espainiako Fabiolarekin ezkondua zegoen. Zarautzen eta Getarian udatari ospetsuak eta maitatuak izanak. Gehienez neurritz gorako gizona izan zen belgikarren erregea, bai buruz, ausardiz eta iraupenez, bai sinismenez eta politika lan-er.

Horrelaxe jaio zen zerurako 1993ko uztailean 31n Balduino erregea. Kristauen eta sinisgabean artean itzal haundiko gizona zen, bere trebetasunez, jakinduriarekin, eta ontasunez. Sinismen gartsu eta sakonaren argira, Jesusekin ongi elkartuta bizi izan zenak, gogotsu eta pozik eraman zuen bere Maisuaren uztaria. Eta ez zitzaion hain astuna gertatu, berak aitortzen duenez, poz eta zorion haundiak nabaritzen baitzuten bihotzean. Gainera honelaxekoa izan baitzen bere hileta ospakizuna.

Buruhauste eta atsekabeak ugari izan zituen bere politikagintzan: belgikarren elkartasuna —gainera, belgikarren erregea

esatea ategin baitzitzaion, eta ez Belgikako erregea—; aborto askearen legeztatzearen aurkako jarrerak ekarri zizkion istiluak...; beti bere jomuga zen, bide zuzenetik gidatzea eta herritarrek elkartzeko ahalegin biltzea. Besteak poztuz bera zoriontsu izateko, ez zen ez aberastasun, ez haunditasun, ez jan-edan garesti, ez 'seksu-askatasun' eta antzekorik behar izan, gaur gizon-emakumeek irrikatzen dituzten bezala, horietan ez baitago maitasunik. Eta Balduinok maitasuna zuen bere aberastasun.

Balduinok bakatu du munduko zalantza, gaur lore berri zaio atzoko arantza, Zerurantz doala eman diogu antza, bere zoriona da gure esperantza. Maita zuen Jainkoa, herria hurrena; bere zerbitzua zen politiko jatorrena. Uste oso bikainan utzi die barrena, on-egitea dela dohai ederrena.

**JOXE AGUSTIN ARRIETA**  
APAIZA

## BERRIAKZIRI



**GEORGE BUSH**  
Estatu Batuetako lehendakari, ohia ABC

«Europak Bosniako gatazkan duen erantzukizuna bere gain hartu behar du, egia den arren mehatxatu ondoren ezin dela ezer egin gabe gelditu»



**JAVIER MOSCOSO**  
Estatu fiskal nagusi ohia NAVARRA HOY

«Zentzugabekeria handia iruditzen zait intsumi-soak kartzelara joate»



**JESUS MARIA ETXEBARRIA**  
Orkestra zuzendari eta konposatzailea DEIA

«Gaur egun, zoritarrez, ezin da musikari ona izan atzerrira joan gabe»



**ADOLFO MARSILLACH**  
Antzezlaria DIARIO DE NAVARRA

«Utopiaren arazoa da ezinezkoa dela beti utopiko izatea. Utopiak gauzatzeko balira, gizakiak bere buruaz beste egin beharko luke»

## ZAKILIXUT

© Olariagak

